

KARLISTEN BIGARREN GUDEA

Bizkai'ko Agintariek, gudako Aldundegian eskuartu izan ebe-nak, batzuk, Urkizu ta Orue'k lez Erregea'ri parkamena eskatu eutsoen.

Eta zegaitik? Txarto egin eben ala, Amorabirebietako Ytunbena izenpetuaz? Olan ez eban erizten Arginzoniz'ek.

Onek eta bere semeak buruan ondo erabillen esanaz: Erregeak txarto egin dauanari parkatu leio, baiña Erregeak errege izanik be, bere eginbearrak zapaldu barik, ezin esetzi, epaitu leike errubakoa, ta eskatu - azo geroago, aren zuri-keta entzun baga, eskabide apalkuntza.

Parkaziñoak Andikiaren biotzabala argiratu lei, baiña inoiz ez salatuaren erru-eza.

* *
*

Arginzoniz-en apalkuntza zertzelada giro aretan, izango zan, ez ain zuzen be, menperatze egoki bat On Karlos'eri bai obeto onen eritxi osoan erri-araudi erakundeak iztea.

Bizkaitarrok olan uste izan eben, Agintarien eredu zan lez, Arginzoniz, atxe bako Lendakari adoretzu zintzo kristiñau polikari on-ona orain Bizkaiak zoritxarrez aren antzekorik eztaukona.

Bizkaitar guztiok bigiratu bear dogu ezin ukatu leitekezela politiko talde bategaitik euren antxiñako Foral Erakundeak, ezta aitzu oneik zainduten, aldi-giroak itxiten deutsoen beste aldabean era obenez.

* *
*

Arginzoniz'ek ezaban artu gura erre-mesede edo onartzerik bere arriko Foru ta Eskubideai kalterik



errege-mesede edo onartzerik bere erriko Foru ta Eskubideai kalterik ez egitearren. Guda Aldundegi'ko aren lagunai, On Karlos'en atsegiñean sartu ziranai ta poz emon eutsoenai zer jazo yaken? Euren us-tez lortutea aregandik gura ebena.

Baiña jadetsi, lortu eben?

Bai zera! Gernika'ko Orokor Batzarrean Urkizu Jauna Ordez-kari (Diputadu) izendatuz izan zanean, eta Erregea Zornotza'ra eldutean, Urkizu'k aginte ori lengoratu egiola eskatu eutson, baiña Erregeak ez euston ixillik geratu-azo.

Eta Amorebieta'koak On Karlos Erregea'gaz adiskidetu izan arren bitartekosuna ta zer-ikusia galdu eben, eta On Karlos'en erregetxean irri-barre ta iseka egiten eutsien, iraiñ-idazkia zabalduta *Los Nuevos Muñagorris* deituaz.

Eta ezin eben galerazo, Foruen urraiñ, gitxi critxiz, Amorebieta'

ko arerioen buru izan zab Abade Goiriena'ren autamena au Ordez-karia izateko.

Alanda guztiz ba 1875'ko bagillaren 21'e an Orduña'ko Errege Agintza urte zan iñoana: «Guztiz zintzo ta Leial Jauneri onen Alkate ta beste Aginteduneai... aurreratuten yake... asarre, biurraldi, eztabaida gogor eta matxinadai indarra artzen izten ba-dautsie... gure talde lerroetan, zigortuak izango direala gubernu alfonsotarren eragille balira lez». Orduña'ko Errege Agintza ta Burdeao'ko agiria begiratu ta bardindu gura dauanak Arjona'k egiñiko maltzurkeriak ikusiko dauz Bizkai'ko guda Aaldundegikoak saltzaille agertu eitezan, eta aienaka jardungo dau griña txarrak itzuturazo leikean Amorebieta Ytunbena'ko gizonek Guda Auzitegi batek epaitu egiazaia ez itxiteraiño.

LETONA'k